



**2017KO AZAROAREN 17KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hamazazpian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko azaroaren 3an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Azertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 113 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEI MILA ETA HIRUROGEITA HAMAIKA EURO ETA BAT ZENTIMO (60.071,01 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- SAN INAZIOKO ESPALOIEN BERRIKUNTZA LANEN 3. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

San Inazio kaleko espaloien konponketa lanen obra zuzendaritza daraman udal arkitekto teknikoak lanen hirugarren obra egiaztatzea egin du. Hirugarren obra egiaztatzearen zenbatekoa HOGETA HAMAIAKA MILA LAUREHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (31.481,68 €), BEZ barne, da. Lan hauek Construcciones Otegi Gaztañaga S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztatze hiru azertu ondoren, aho batez, onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak azertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 14-11-09 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, urriaren 27tik hasita, astean 10 orduetik 12,5 ordura, onuradunak arreta handiagoa behar duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.

- 17-11-08 zbk.dun esped.: zerbitzua jartzea, azaroaren 14tik hasita, astean 2 ordu, etxeko lanetan laguntza emateko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %39 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 17-01-013 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 € ematea, urritik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 15-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza etetea abuztuan, herritik alde egin duelako.
- 17-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastu eta alokairurako diru laguntzak aldatzea, elkarbizitza unitatean aldaketak egon direlako, hilean 46,25 €ko diru laguntza ematetik hilean 92,5 € ematera mantentze gastuetarako eta 125 €tik 250 €ra alokairurako. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

Esku hartze familiarra.-

- 16-15-01 zbk.dun esped.: esku hartze familiarra luzatzea beste sei hilabetez. Luzapenaren kostua 3.584,49€koa da.

V.- EUSKERAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskara eta Hezkuntza Batzordetik aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartzen du: 2016-2017 ikasturtean euskarako eskoletan ibili diren ikasle lazkaotarrei diru laguntza ematea. Diru laguntza ematen zaien lagunak 14 dira eta ematen zaiena, guztira, 8.837 € da.

Diru laguntza hauek, honetarako ezarrita dauden arauak betetzen dituzten eta horien arabera ematen dira. Diru laguntza hauen onuradunak, bere espedientearen dagoen zerrendan jasotzen dira.

VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kulturako batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartzen du:

Jundajo txaranga.- 2017ko irailaren 9an Gurutzeko festetako egitarauaren barruan parte hartzeagatik 250 €ko diru laguntza ematea.

VII.- AZAROAREN 25A, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-

Azaroaren 25a, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, honen inguruko adierazpen instituzionala onartzeko bi testu aurkeztu dira, bata EULEk proposatutakoa eta bestea EH Bilduk proposatutakoa.

Lehenengo testuak honela dio:



LAZKAOKO UDALA

"Azaroaren 25a dela eta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria mota honen izaera estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde. Era berean, nazioarteko zuzenbide-esparruarekin bat, berresten dugu bada-goela loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irte dakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa ere bada esku-hartzearen plano guztietan jarduketak planteatzea: Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitze-ko dugun konpromisoa oinarritzat hartuz, dagokigun erronka da erreparazio-eskubidea emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean sartzeko. Horretarako, eskura izan behar ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik. Beharrezkoa da ahotsa eta protagonismoa ematea, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera.


Erreparazio honen helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irte dakoeak guztiz osatzea izan behar da. Hortaz, barne hartu behar du inplikaturiko zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea, nola-eta horiek guztiak sistematikoki aztertuz.

Beraz, emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, honakoa agertzen dugu:

- Gure konpromisoa agenda politikoan indarkeriak eragindako emakume biktimekiko erreparazio-eskubidearen aitortza eta horri buruzko hausnarketa sartzeko, guztiz osatu daitezen eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten.
- Gure konpromisoa udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko edo, hala badagokio, abian jartzeko, indarkeria matxistari aurre egitea xede, emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin batera, bai halaber gizarte zibilarekin eta herritarrekin oro har.
- Gure konpromisoa gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko, hartara herri-erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatu daitezen.
- Eta gure ardura, indar politiko guztien eta erakundeen adostasunaren bitartez, beharrezkoak diren baliabideak eskura izan daitezen, xedea izanik emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik desagerrarazten aurrera egitea."

Bigarren testuak honela dio:

"Azaroaren 25a, emakumeen kontrako mota guztietako indarkeria gaitzesteaz gain, indarkeria sortzen duten agente eta egitura guztiak gaitzesteko eta aski dela esateko egun bat da. Eta egun horretan erakunde publikoek, borroka horretan dugun lehentasunezko agente-izaera berretsiz, konpromiso zehatzak hartu behar ditugu. Emakumea izateagatik soilik indarkeria jasateko aukera txikiena dagoen bitartean, gure herrian ez dugu bakea edo normalizazioa lortuko.



Horregatik, Lazkaoko Udalak honako adierazpen instituzional hau aurkeztu nahi du:

ARRAZOIA:

Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna" dela-eta, Lazkaoko udal honek, emakumeek indarkeria matxistatik aske bizitzeko aukera izango duten guneak eraikitze xedez, herrialde eta lurralde askeak lortzeko, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean oinarritutako elkarbizitza-eredu askeak errealitate bihurtzeko, egitura sozial paritarioa lortzeko xedez, gure herrialde-konpromisoa sakontzea gure gain hartzen dugu, eta era berean, herritar guztien konpromiso politikoa sakontzen jarraitzeko asmoa dugula berresten dugu.

Herritarren bizitza kolektiboa kudeatzeko ardura duen erakunde orok bere agenda politikoaren eta jardun instituzionalaren lehentasun gisa indarkeria matxistarik gabeko herrialdeak eta lurraldeak eraikitzea izan behar du, baita gizarte berdintzaile baten defentsa ere, non emakumeek euren burua aske sentituko duten.

Aurten ere, Hego Euskal Herrian indarkeria matxistaren datuek gorantz jarraitzen dute, eta % 18,2 handitu dira 2016. urtean 2015. urtearekin alderatuta. Emakume asko, eta askotan ahaztu egiten ditugun haien seme-alabak hil egin dituzte aurten, eta sexu-indarkeriako kasu asko ere izan dira, batez ere udako herri-festetan.

Gainera, kontzeptu horiek despolitizatzen dituen sistema batek bere gain hartzen ditu kontzeptu feministak, eta edukirik gabe uzten ditu, berdintasun faltsuko egoera bat normalizatzen lagunduz. Errealitateak aurkakoa adierazten digu; datu mediatiko eta ezagunek, gorputzen aurka euren adierazpenik muturrekoenean eragindako zuzeneko indarkeriaren (bortxaketak eta heriotzak) datuek deseroso sentiarazten eta oihartzun soziala sortzen duten arren, ikus dezakegu indarkeria mediatiko eta soziala handitu egiten dela eta indarkeria fisikoa jasan duten emakume horiek beraiek zalantzan jartzen dituztela, erasoaren errua botatzen dietela eta, kasurik onenean, birbiktimizatu egiten dituztela, euren baliatzeko gaitasuna kenduz. Adibide gisa, salaketa faltsuei ematen zaien garrantzia azpimarratu nahi dugu, guztizko salaketen % 0,001 besterik ez diren arren.

Aldi berean, oihartzun txikia duten indarkeria-adierazpenak daude, horiek normalizatzen dituztenak eta emakumeen kontrako desberdintasunak eta bereizkeria iraunarazten dituztenak; indarkeria sinbolikoaren kasua da, komunikabideen, publizitatearen edota musikaren bitartez sortzen dena, emakumeak zapaltzen dituzten arauak eta esanak ezarriz, edota indarkeria ekonomikoaren kasua, soldata txikiagotan, lan-baldintza txarragotan eta abar islatzen dena. Era berean, aurten ere kezka handiarekin ikusten dugu emakumeen kontrako indarkeria handitu egin dela herrietako jaietan eta aisialdirako guneetan. Ildo horretan, bereziki kezkatzen gaituzte gazteengan gertatzen diren botere-erlazioak, askotan kontrola, gehiegikeria eta, zenbaitetan, indarkeria fisiko eta sexuala barne.

Feminismoak erakutsi digu errealitate bat aipatzeak ikusgai bihurtzen duela: indarkeria, bere adiera guztietan, desberdintasunen sistemaren zati den heinean, ikusezin bihurtu da eta alderdi pertsonalei garrantzi handiegia ematen zaie, eta ikusarazi nahi digute indarkeriazko gertakariak arrazoi pertsonalen ondorio direla eta ez arrazoi sozialen ondorio. Ez da nahikoa indarkeria-adierazpen jakin batzuk aipatu eta salatzea horrelako ekintzaren bat gertatzen den bakoitzean; arrazoiaren gainean jardun behar da, sustraira jo behar da.



Beraz, beharrezkoa da indarkeria-adierazpenen arrazoieta sakonduko duen ahalegin bat egitea, emakumeen ekiteko ahalmenak onartuz, haien erruduntasuna gaitzetsiz eta indarkeria matxistarik gabe bizi ahal izan daitezen lagunduz. Eta horretarako ezinbestekoa da gure gizarte-ereduaren egitura-aldaketa bat egitea; hori ez egitea bidezko aldaketa baten aldeko konpromisoari uko egitea izango litzateke.

Eta zeregin hori, gure egin behar dugun konpromiso hori, gizartea osatzen dugun agente guztiok egin behar dugu, bestela indarkeria matxistari eusten jarraituko genukeelako. De-non erantzukizuna delako bakoitzaren eragin-eremutik aurre egitea sortzen edo babesten ari den indarkeria matxista amaitzeko: erakunde publikoak, kultura-agentek, komunikabi-deak, lan-arloko agenteak eta agente ekonomikoak. Baina pertsonak, familiek, adiskideek, kolektiboek eta arduradun publikoek ere zuzeneko erantzukizuna dute.

Indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko modu desberdinak ere babestu behar dira, hel-buru bakarra izan arren horren aurka borrokatzeko modu asko egon daitezkeelako: auto-defentsa feminista bide bat da, baina era berean baliozkoak dira Beldur Barik ekimena, edo herrietako festetako testuinguruan aktibatu diren ekimenak eta ekintzak, elkarteek edo auzoek egiten dituzten ekimenak eta abar, denei eman behar zaie babesa.

Horregatik, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi ditugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide ho-rron eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

PROPOSAMENA:

- 1.- Lazkaoko Udal honek, Emakumeen Munduko Martxak bultzatutako indarkeria matxis-tari aurre egiteko protokoloa bere egiten du.
- 2.- Lazkaoko Udal honek, kolektibo feminista eta emakume-taldeekin elkarlanean, Lazka-oko herriarekin lotutako indarkeria matxistei aurre egiteko plan bat jarriko du martxan, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta tekniko guztiak aktibatuz.
- 3.- Lazkaoko Udalak Indarkeria Matxistaren aurkako Behatoki bat jarriko du martxan, erasoak identifikatu eta salatzeke, indarkeria hori ezabatzeko eta gertatu baino lehen prebenitzeko, emakume-taldeekin eta kolektibo feministekin elkarlanean.
- 4.- Lazkaoko Udal honek, izateko eta izendatzeko modua orekatzeko xedez, aurrerantze-an "indarkeria matxista" adiera erabiliko dugu, adituek hori erabiltzen baitute modu normalizatuan.
- 5.- Lazkaoko Udal honek, 2018ko aurrekontuak definitzeko unean, berdintasun-unitateei beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak emango dizkie, eta unitate horiek egonkortu eta indartzeko konpromisoa hartzen du.
- 6.- Lazkaoko Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizo-nen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zu-zendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko le-geria berraztertzeke konpromisoa hartzeko.



- 7.- Lazkaoko Udal honek hezkuntzako agenteei zuzeneko deia egiten die curriculum-lerroetan genero-berdintasuna sar dezaten.
- 8.- Erakunde honetatik, hau da, Lazkaoko Udaletik borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko bide eta tresna nagusia den heinean.
- 9.- Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 24 eta 25erako deitutako mobilizazioekin, eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezan."

Luze eztabaidatzen dute tokiko gobernu batzarreko kideek, udal honetan emakumeen inguruko gaien kudeaketa egiteko moduan.

Eztabaidaren ondoren bozketan jartzen dira onarpenera aurkeztu eta aktan jaso diren bi testuak.

Lehen testua onartu egiten da, aldeko hiru boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu).

Bigarren testua ez da onartzen, aldeko bi boto (EH Bildu) eta aurkako hiru botoz (EAJ).

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko laurak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA